

Otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak onesten zuen Ondasun Higiezinari buruzko zergaren kudeaketaren gaineko hainbat puntu garatzen dituenak.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua: Ondasun higiezinari buruzko aldaketak.....	2
2. artikulua: Aitorpenak.....	2
3. artikulua: Aitorpenak aurkezteko epeak.....	2
4. artikulua: Aitorpena egiteko obligazioa.....	3
5. artikulua: Obligazioen ez betetzea.....	3
6. artikulua: Salbuespenak eta hobariak.....	3
7. artikulua: Salbuespen eta hobari eskaerak eta eragina.....	3
8. artikulua: Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak.....	4
9. artikulua: Erroldaren edukia.....	4
10. artikulua: Zerga zorraren ordainketa.....	4
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	5
AZKEN XEDAPENA.....	5

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 18. artikulua (uztailaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta irailaren 7ko E.H.A.A.n) Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kudeaketa arautzen du eta zamapean dauden ondasunetan izandako aldaketa edo altak, arauz finkatzen diren epeen barne, aitorzeko obligazioa ezartzen die zergapean dauden subjektu pasiboari.

Foru Dekretu honek aipatu epeak finkatzeaz gain, ondasun higiezinaren aldaketa fisikoa, ekonomikoa eta juridikoa izatera zehaztu eta okerreko ordainketen itzulketarako erreklamazioa eta eskaerak, salbuespenak eta hobarien gaian erabil daitezkeen prozedura garatzen du.

Hala, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren azken xedapeneko lehengo atalean aurrikusitakoaren arabera Hazienda Finantza eta Aurrekontu Departamentuko Foru Diputatuaren proposamenaz eta gaurko egunez, 1990eko uztailaren 5ean eginiko Diputatuen Kontseiluan eztabaidatu ondoren.

ZERA ERABAKITZEN DUT

1. artikulua: Ondasun higiezinaren aldaketak.

Ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 2. ataleko 18. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, honako eraketa izango dira ondasun higiezinari dagozkien aldaketak:

a) Aldaketa fisikoa: eraikuntza berri eta zutik dauden zabalpen, birrintze edo suntsiketa osoa edo zati batena. Hala ere ez dira aldaketatzat hartuko egiten diren obrak edo konponketa-lanak, periodikoak ez izan arren; ez eta hornakuntza ezaugarri dagozkienak ere.

Era berean, aldaketa fisikotzat hartuko da landa-zonaldeko ondasun higiezinaren probetxamendu edo labore motaren aldaketa.

b) Aldaketa ekonomikoa: Ondasun higiezinaren aldaketa fisikorik ez daraman erabilpen edo izatera aldaketa.

c) Aldaketa juridikoa: titulartasunaren eskualdaketa edo Foru Dekretuaren 5. artikuluan xedatzen den edozein eskubideren eraketa, ondasun higiezinaren banaketa edo zatiketa, edota denak biltzea.

2. artikulua: Aitorpenak.

1. Alta aitorpenak, eraikuntza, berriak direnean, edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzen den edozein ondasun higiezinaren aldaketa fisikoa, ekonomikoa edo juridikoa dela-eta, egin beharreko gainontzeko aitorpenak Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren Foru Arauaren bidez onartutako inprimaki eredutan egin beharko dira eta aipatu ondasun edo eskubideen titularrak egin beharko du.

2. Aitorpenak, alegia, ondasuna kokatzen den Udalerriaren Udalean aurkeztu beharko dira eta honek, bere zerbitzu teknikoek luzaturiko txostenekin eta katastroa dela-eta, behar bezala kodeztaturik, Haziendako Zuzendaritza Nagusiaren Zerga Lokalen Zerbitzura bidaliko ditu.

3. artikulua: Aitorpenak aurkezteko epeak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren zerga-aitorpenen aurkezpenerako epeak segidako hauek dira:

a) Eraikuntza berrien alta edo ondasun higiezinetakoa aldaketa fisikoen aitorpenak, obralanak amaitu eta ondorengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

b) Aldaketa ekonomikoak direla-eta egin behar den aitorpenerako, bi hilabete, dagokion erabilpena edo izaeraren aldaketarako eman den administrazio-baimena eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik.

c) Aldaketa juridikoetarako, bi hilabete, eskritura sinatu edo, hala balegokio, aipatu aldaketa arautzen duen dokumentua sinatu zen hurrengo egunetik kontatzen hasirik.

4. artikulua: Aitorpena egiteko obligazioa.

1. Foru Dekretu honetako 2. artikuluan aurrikusiriko aitorpenak egiteko obligazioa izango dute ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 5. artikuluan aipatzen diren ondasun eskubideen titularrak.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan gabe aipatu 12/1989 Foru Araueko 5. artikuluan adierazten den edozein eskubideren titulartasun eskualdaketa egin duen pertsonak edo Erakundeak ere egin dezake.

5. artikulua: Obligazioen ez betetzea.

Aurreko artikuluetan aipatzen diren aitorpenak ez egitea edo aipatu epeen barnean ez egitea, zerga-urraketa bakunen artean sailkatuko da.

6. artikulua: Salbuespenak eta hobariak.

12/1989 Foru Araueko 4. eta 5. artikuluetan eta lehenengo xedapen iragankorrean aurrikusten diren salbuespen eta hobariak ematea edo ez ematea ondasun bakoitza kokatzen den Udalerriko Udalarik dagokio, baina beti ere, Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren Foru Arauak onartzen duen inprimaki-ereduaren bidez eskatu beharko da.

Salbuespen edo hobari eskaera eginik, Udalak erabaki proposamenaren ziurtagiria igorriko dio Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuari, honek dagokion txosten teknikoa luza dezan. Eta txosten tekniko honen ondorioz Udalak bere erabaki proposamena aldatuko balu, erabaki berriaren kopia ziurtatua igorriko dio Haziendako Zuzendaritza Nagusiari, berau ere jakinaren gainean egon dadin.

7. artikulua: Salbuespen eta hobari eskaerak eta eragina.

1. Hobari eskaerak, hots:

a) 12/1989 Foru Araueko 15 artikuluan aurrikusten den kasuan, obralana hasi eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

b) Babespen ofizialeko etxebizitzak direnean, obralanak amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

2. Nolanahi ere, ez da inoiz hobari bat baino gehiago izango ezarraldi bakoitzean.

3. Izaten diren salbuespen eta hobariak eskaera egin eta hurrengo ezarraldian jarriko dira indarrean.

8. artikulua: Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak.

Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak bakoitzari dagokion Udalean aurkeztu behar dira, Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren Foru Arauak onartzen duen inprimaki ereduaren.

9. artikulua: Erroldaren Edukia.

Zerga Errolda bakoitzean zamapean dauden landalur zein hiri-zonaldeko ondasun higiezinak, bereizturik, biltzen dituzten erroldaz dago osaturik. Eta behar bezala identifikaturik, bakoitzaren subjektu pasibo zergadun eta dagokion katastro-balioa adieraziko du. Erroldak, bestalde, azken urte naturalean izandako aldaketa fisiko, ekonorniko eta juridikoak jasoko ditu.

Zergaren urteko Errolda, Udal Zergetarako Zerbitzuak egingo du eta hala dagokion ondorioetarako, zerbitzuburuak hura onartzen deneko diligentzia luzatuko du, interesa luketen Udalera igorriko dena urteroko apirilaren lehena baino lehen jendaurrera atera dezaten.

10. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.¹

1. Zergaren kuotak ordainagiri bidez bilduko dira. Izaera orokorrean, zerga zorra borondatez ordaintzeko epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartekoa izango da eta, azken egun hori jaieguna bada, hurrengo lehen lanegunean amaituko da, beti ere alta berrien ondorioz likidatzen diren kuoten kaltetan gabe.

Bilketa horren ondorioetarako, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren bilketari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

2. Udalek esku izango dute aurreko apartatuan izaera orokorrean ezarri den borondatez ordaintzeko epea beren ordenantza fiskaletan aldatzeko. Epe hori ezin izango da hasi Erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen, eta bere egun kopurua ez da inoiz izaera orokorrean adierazitako epearena baino txikiagoa.

3. Era berean, udalek beren ordenantza fiskaletan erabaki ahal izango dute zerga zorraren ordainketa inolako interes eta errekaririk gabe zatikatu ahal izatea.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa xedatuta ere, gertatzen bada udalek Foru Aldundiaren eskuetan utzi dutela, bidezko Hitzarmenaren bidez, zergaren kudeaketa, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik aldatu ahal

¹ 10. artikulua hau abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretuaren 1. artikulua gehitzen du. Dekretu honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen ditu borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. 2001eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Alabaina, borondatez ordaintzeko epeak udalen nahiz Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren aldetik aldatzeko ahalmenak 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera bakarrik izango du eragina.

izango du borondatez ordaintzeko epe orokorra, beti ere aurreko 2. apartatuan ezarritako muga berberekin.

Orobat, kasu horietan Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik baimendu ahal izango du zorra zatika ordaintzea, aurreko 3. apartatuan aipatu dena.”

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Dekretu hau aplikatu-ondoren sor daitekeen edozein gorabehera, Haziendako Zuzendaritza Nagusiak konponduko du, bere eskumenen baitan.

AZKEN XEDAPENA

Lehena: Baimena ematen zaio Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuko Foru Diputatuari Foru Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren arauak luzatzeko.

Bigarrena: Foru Dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen dituen borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. (2000-12-29ko GAO)*
 - 1. artikulua 10. artikulua gehitzen dio.